

HIRUGARREN MAILA-92-93

① ELHEKETA: ASTE HUNTAKO ELHEPIDEA.

1. Nor da Pettan?

2. Mariño nor da? Zer egin du?

3. Leon hasarre da?

② TABAKO BELHAR TIZANA.2.

Noizbait akituxe zelarik, gelditu zen dantzatik eta, ixil ixila, harmairu xoko batean eman zuen bere tabako-hosto eder mirakuiluzkoa, xerraka, xerraka, kanitaz pulliki pikaturik.

Biharamunean, Pettan, etxeko osaba adineko bat, erixko izanez, sehia⁶ joan zen delako armairu hartarat. Malba hostorik ez hatxemanik, ez eta ere tillularik⁷, eskuratzen ditu bezperako tabako-hostoak. Duda pitta bat izanagatik, hauzorat ez nahiz joan, hosto hek ere segur sendagailu zirelakoan, egiten du heiekin tizana bat, bainan tizana bat, kolorearen ederrez begietarik ez baitziteken utzi!

Azukrea kario zelarik arras, halere ongi azukrestatzen du, eta Pettani emaiten.

Ez duzue ezagutzen Pettan?... Igual du. Pettanek beraz, mazapena bezalako gizon bat baita, tizana edaten du, eta ainkoaren lorian, hurrupatzen, azukre ondarrak eta oro kullirarekin biltzen dituela eta milikatzen.

—Zer tizana hau, Mariño! Hilak phiztuko ere ditu holako gauzañoak!

Eta, Mariño gorri gorria egina, urguiluz hantua, galdez eman zitzaion, hean bigarren taza bat hartuko zuenez.

Pettanek, ez baita gormant⁸ hetarik, ez zion bigarren tazarik hartu, bainan zortzi egunez, hantxet, lorietan hurrupatu zuen tizana xarmatua. Apetitua joantxea ere baitzuen aspaldixkoan berriz jin zitzaion, koloreak gorritu, begia argitu. Hots, gaztetu, gure gizona.

Handik zortzian, bere azken porroxxak errerik, Leon badao harmairurat, bere tabako hostotik toxan eman beharrez. Ah! zer pafadak arthiki beharrak dituen, sarri, bere adixkideak bekhaiztiz kirrikan daudelarik!... Bainan, non demuntre da?...

—Mariño, non eman duzu nere tabako hostoa?

—Tabakoa nausia? Ez dut nik tabakorik ikusi!

—Tabakorik ez ikusi? Zer egin da, bada, duela zortzi egun nihauerek xerrakaturik, hementxet, xoko huntan, paper ilhun hunen barnean eman nuen tabako hostoa?

—Paper ilhun hortakoa? Tabakoa baitzen? Ai dohakabea! Ai! ai! ai!

—Hots, zer tutzu intzire hoiek? Zer egin duzu ene tabakoa?

—Pettani eman...

—Pettani?

—Bai osaba Pettani; zortzi egunez, tizanetan... ustez eta malba hosto zerbait zen... Ai, ai, ai!...

—Tizanetan? Ene tabakoa? Hogoi'ta bortz liberaren tabakoa? Bi mila... Zoazkit bixtatik, perreka, herresta, herbaila, krebaut! Ez dakit bertzenaz zer egingen dautzutan!

↳ Eta hain xuxen, oro entzuten zituela, osaba orduan berean arturik, han zauden, Pettan eta Leon, sukaldean, xutik, elgarri beha, Leon hasarreak gorri beltzatua... (25 liberaren tabakoa tizanetan!) eta Pettan, pareta bezen zuri egina beldurra... (Zortzi egunez tabako-tizana nik edan! Pozoindatua! Galdua...)

③ ADITZ IKASKUNTZA

31. baitziteken 32. jin zitzaion

33. zoazkit 34. han zauden.

31. IZAN. Potentiel Imparfait

Ni izan nintzen = je pouvais être

Hi —" hintzen = tu pouvais être

Zu ^{noiz} —" zintezken = vous pouviez être

Hura —" ziteken = il pouvait être

Gu —" gintezken = nous pouvions être

Zuek —" zintezketen = vous pouviez être

Heek —" zitezken = ils pouvaient être

32. IZAN. Régime indirect Indicatif Imparfait

Hura zen = il était

Hura (lui) zitzaitan = il m'était

zitzaizun = il vous était

zitzaion = il lui était

zitzaigun = il nous était

zitzaizuen = il vous était

zitzaien = il leur était

33. JOAN. Régime indirect Présent singulier

331 Ni noa = je vais.

Ni (moi) noakizu = je vous vais

noakit = je lui vais

noakizue = je vous vais

noakie = je leur vais

332 Zu zoazte = vous allez

Zu (vous) zoazkit = vous m'allez

zoakit = vous lui allez

zoakizue = vous nous allez

zoakie = vous leur allez